

GETXOKO ELIZATE TXIT PRESTU ETA TXIT LEIALEKO UDALA ERATZEKO BATZARRAREN AKTA, 2011KO EKAINAREN 11N	ACTA DE LA SESIÓN DE CONSTITUCIÓN DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE LA M.N. Y M.L. ANTEIGLESIA DE GETXO, EL DÍA 11 DE JUNIO DE 2011.
--	---

<u>ETORRI DIRENAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
ZINEGOTZIAK (Jn./Andk.)	CONCEJALES (Sras./Sres.)

Imanol Landa Jauregui (EAJ/PNV).
Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV).
Koldo Imanol Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV).
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV).
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV).
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV).
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV).
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV).
Itziar Epalza Urkiaga (EAJ/PNV).
Marisa Arrue Bergareche (PP).
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Jesús Toca Toña (PP).
Raquel González Díez-Andino (PP).
Iñaki Gamero Delgado (PP).
Javier Ruiz Egaña (PP).
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP).
Fco. Javier Elorza Hormaechea (PP).
Ana Basilio Carnicer (PP).
Maitane Nerekan Umaran (BILDU).
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU).
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU).
Roberto Martín Prieto (BILDU).
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE)).
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE)).

<u>IDAIZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------	---------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako ekainaren hamaikako hamarrak direnean, lehen deialdian, eta udalbatza eratzeko bilera egiteko asmoz, Hauteskunde Erregimeneko 5/85 Lege Organikoaren 195 artikulua araberan, arestian esandako zinegotzi hautetsiak elkartu dira. Aurretiaz beren nortasuna erakutsi dute, Hauteskunde Batzarrak luzatutako frogagiriak aurkeztuta. Udalbatzako idazkari nagusia, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna ere bertan dago, laguntzeko.

Bilkura egiteko legez behar den jende kopurua badagoela egiaztatu ondoren, eguneko aztergaien zerrendako bi gai bakarrak jorrateari ekin diote, lege araudian aurreikusitako bezala, eta emaitza hauxe izan da:

84.- UDALBATZA ERATZEA

Hasteko, Adin Mahaia osatu da: hautetsien artean adinez nagusia Marisa Arrue Bergareche andrea da, PPren alderdiaren izangai hautetsia, eta adinez gazteena Maitane Nerekan Umaran andrea, Bilduren izangai eta

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ilustre Ayuntamiento de Getxo, siendo las diez horas del día once de junio de dos mil once, en primera convocatoria, y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, de conformidad con el artículo 195 de la Ley Orgánica 5/85, del Régimen Electoral, se reúnen los Concejales electos arriba expresados, quienes previamente han acreditado su personalidad mediante la aportación de las credenciales expedidas por la Junta Electoral, asistidos del Secretario General de la Corporación don Ignacio Javier Etxebarria Etxeita.

Comprobado que existía número legal suficiente para celebrar la sesión, se pasó a tratar de los dos únicos asuntos incluidos en el Orden del Día, previstos en la normativa legal, con el resultado siguiente:

84º.- CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO.

Se procedió en primer lugar a la formación de la Mesa de Edad, que fue integrada por doña Marisa Arrue Bergareche, Concejala de mayor edad proclamada electa por la candidatura del PP, y por doña Maitane Nerekan

hautetsia. Adin Mahaiko Idazkari, berriz, indarreko araudia betez, udaleko idazkaria bera, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna arituko da.

Umaran, Concejala de menor edad proclamada electa por la candidatura de Bildu, y actuando como Secretario de dicha Mesa de Edad, de conformidad con la normativa vigente, el que lo es del Ayuntamiento, don Ignacio Javier Etxebarria Etxeita.

Jarraian, Bilboko eremuko Hauteskunde Batzarrak bidali duen Getxoko zirkunskripzioari dagokion ALDARRIKAPEN AKTA irakurri da, non izangai zerrenda bakoitzak atera dituen botoak eta lortu dituen zinegotziak ageri baitira. Hara:

Seguidamente el suscrito procedió a dar lectura del ACTA DE PROCLAMACIÓN correspondiente a la circunscripción de Getxo, remitida por la Junta Electoral de Zona de Bilbao, en la que constan el número de votos y electos obtenidos por cada candidatura, de la forma siguiente:

Hautagai-zerrendak Candidaturas	Jasotako botoak Votos obtenidos	Hautetsi kopurua Número de electos
Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco	14.182	10
Partido Popular	12.982	9
Bildu-Eusko Alkartasuna (EA) Alternatiba	7.048	4
Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE)	4.170	2
Ezker Batua-Berdeak	1.067	0
Aralar	863	0
Independientes de Getxo	757	0
Unión Progreso y Democracia	593	0
Por un mundo más justo	360	0
Partido Social y Vasco	71	0

Jarraian hogeita bost hautetsiak bertan daudela egiaztatu da.

A continuación se comprobó que habían comparecido los veinticinco Concejales elegidos.

Ez da inolako bateraezintasun ziorik argudiatu, eta egiaztatu da indarreko araudiak agintzen duen ondare ondasunen eta interesen aitorpenak aurkezteari buruzko baldintza guztiak bete direna, eta egiaztagiriak ere aurkeztu direna; beraz, mahaiak udalbatza berria aldarrikatu du, Hauteskunde Batzarrak, lege

No se alegó ninguna causa de incompatibilidad, comprobándose que se habían cumplido todos los requisitos establecidos de presentación de las declaraciones de bienes patrimoniales y de intereses que establece la normativa vigente, al igual que las Credenciales, por lo que la Mesa declaró proclamada la nueva Corporación, de conformidad

aurreikuspenak betetzeko, bidalitako boto zenbaketaren aktaren arabera. Honelaxe osatuta geratuko litzateke:

Imanol Landa Jauregui (EAJ/PNV).
Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV).
Koldo Imanol Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV).
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV).
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV).
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV).
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV).
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV).
Itziar Epalza Urkiaga (EAJ/PNV).
Marisa Arrue Bergareche (PP).
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Jesús Toca Toña (PP).
Raquel González Díez-Andino (PP).
Iñaki Gamero Delgado (PP).
Javier Ruiz Egaña (PP).
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP).
Fco. Javier Elorza Hormaechea (PP).
Ana Basilio Carnicer (PP).
Maitane Nerekan Umaran (BILDU).
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU).
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU).
Roberto Martín Prieto (BILDU).
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE)).
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE)).

Jarraian, mahaiko idazkariak esan du Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 108-8 artikulua arabera, hautetsiek, karguaz jabetzen direnean, erabateko zinegotzi izango badira, Konstituzioari zin egin edo men egin beharko diotela.

Horretarako, legez ezarritako zin edo aginduaren formula irakurri du, 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuak aurreikusitakoa; hauxe da:

con el Acta de escrutinio remitida por la mencionada Junta Electoral, en cumplimiento de las previsiones legales, con la siguiente composición:

Imanol Landa Jauregui (EAJ/PNV).
Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV).
Koldo Imanol Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV).
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV).
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV).
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV).
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV).
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV).
Itziar Epalza Urkiaga (EAJ/PNV).
Marisa Arrue Bergareche (PP).
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Jesús Toca Toña (PP).
Raquel González Díez-Andino (PP).
Iñaki Gamero Delgado (PP).
Javier Ruiz Egaña (PP).
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP).
Fco. Javier Elorza Hormaechea (PP).
Ana Basilio Carnicer (PP).
Maitane Nerekan Umaran (BILDU).
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU).
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU).
Roberto Martín Prieto (BILDU).
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE)).
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE)).

Seguidamente el suscrito Secretario componente de la Mesa, manifestó que de conformidad con el artículo 108-8 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, en el momento de tomar posesión, y para adquirir la plena condición de sus cargos, los candidatos electos deberán jurar o prometer acatamiento a la Constitución.

A tal efecto, dio lectura de la fórmula de juramento o promesa legalmente establecida, prevista en el Real Decreto de 5 de abril de 1.979, que es como

sigue:

Zin dagizue, edo agintzen duzue, zuen kontzientzia eta ohorearen izenean, Getxoko udaleko zinegotzi arduraren eginbeharrak zintzoki beteko dituzuela, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzuela, Estatuko funtsezko araua delako?

¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?.

Galdera horri honelaxe erantzun diote bertaratutako zinegotziek:

A la citada pregunta respondieron los Concejales asistentes de la siguiente manera:

<u>Izen abizenak/Nombres y apellidos</u>	<u>Erabilitako formula/Fórmula utilizada/</u>
Imanol LANDA JAUREGI	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Keltse EIGUREN ALBERDI	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Koldo ITURBE MENDILIBAR	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Joseba ARREGI MARTÍNEZ	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Ana HELGUERA LIBANO	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Elena CORIA YANGUAS	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Álvaro GONZÁLEZ PÉREZ	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Kepa MIÑAMBRES LLONA	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Josu LOROÑO GOIENETXE	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Itziar EPALZA URKIAGA	Legeak horrela aginduta hitza ematen dut
Marisa ARRUE BERGARECHE	Jura
Eduardo ANDRADE AURRECOECHEA	Jura
Jesús TOCA TOÑA	Jura
Raquel GONZÁLEZ DÍEZ-ANDINO	Jura
Iñaki GAMERO DELGADO	Jura
Javier RUIZ EGAÑA	Jura
Jone RUIZ DE EGUILAZ SALAZAR	Jura
Fco. Javier ELORZA HORMAECHE	Jura
Ana BASILIO CARNICER	Jura
Maitane NEREKAN UMARAN	Legeak aginduta hitza ematen dut
Bingen Mirena SAITUA IRURETAGOIENA	Legeak aginduta hitza ematen dut
Miren Arantza GUTIÉRREZ PAZ	Legeak aginduta hitza ematen dut
Roberto MARTÍN PRIETO	Legeak aginduta hitza ematen dut
Luis ALMANSA RUBIO	Promete
Agustín RUIZ ESTIVARIZ	Promete

Ondorioz, Adin Mahaiko buru Jose Marisa Arrúe Bergareche andreak, kargu jabetzearen tramite guztiak bete ondoren, Getxoko Udalbatza legez eratuta geratu dela adierazi du.

Idazkariak, segidan, udalaren eta bere autonomiadun erakundeen ondasunen kontaketa eta inbentarioa udalbatzaren eskueran zeudela argitu du.

96.- ALKATEA HAUTATZEA

Jarraian, Alkatea hautatzeari ekin diote, arestian aipatutako Lege Organikoaren 196 artikulua dioen bezala, udalbatza eratzten denean alkatea hautatuko dela baitio bertan.

Horretarako, idazkariak zinegotziei ohartarazi die beren hauteskunde zerrendetako buru izandako zinegotzi guztiak alkate izateko aurkez daitezkeela. Dagokienei galdetu zaie, uko egin dio aurkezteari. Beraz, ondoko zinegotziak aurkeztu dira alkate izateko:

EAJ/PNVtik Imanol Landa Jauregi jauna
PPTik Maria Luisa Arrue Bergareche andrea
BILDUtik Maitane Nerekan Umaran andrea
PSE-EE (PSOE)tik Luis Almansa Rubio jauna

Maitane Nerekan-ek, Bildu-ren izenean,

En consecuencia, la Presidenta de la Mesa de Edad doña Marisa Arrúe Bergareche, una vez cumplidos los trámites de la toma de posesión, declaró legalmente constituida la Corporación del Ayuntamiento de Getxo.

El suscrito Secretario dio cuenta seguidamente de que estaba a disposición de la Corporación el arqueo y el Inventario municipal de bienes municipales y de sus Organismos Autónomos.

96º.- ELECCIÓN DE ALCALDE

A continuación se procedió a la elección de Alcalde, de conformidad con el artículo 196 de la Ley Orgánica antes citada, cuyo artículo señala que en la sesión de constitución se procederá a la elección de Alcalde.

A tal efecto el suscrito Secretario advirtió a los señores Corporativos que podían ser candidatos todos los Concejales que encabezasen sus correspondientes listas electorales. Preguntados los afectados, proclamándose como candidatos a la Alcaldía, los siguientes Concejales:

Por el EAJ/PNV: don Imanol Landa Jauregi.
Por el P.P: doña Maria Luisa Arrue Bergareche.
Por BILDU: doña Maitane Nerekan Umaran
Por PSE-EE (PSOE): don Luis Almansa Rubio

Maitane Nerekan, en nombre de Bildu,

hitza eskatzen du eta lehendakariak eman egiten dio. Testu bat irakurtzen du euskaraz; honela dio hitzez hitz:

“Zorionak guztioi, zuen ahaleginari esker posible egin duzuelako Bildu koalizioak gaur hemen indarrez agertzea.

Euskal Herrian aro berri batean sarturik gaude, aldaketaren garaian. Ilusio eta itxaropenez kargaturik dago giroa eta zuengan, herritarrengan, indar berezi bat nabari daiteke, kaleetan nabaritu dugun indarra baina baita ere urrunetik, ~ ziegatetik ere jaso dugun indarra, gaurkoan politika egiteko beste eredu bat martxan jartzera ekarri gaituena.

Pozez gainezka eta ardura osoz hartzen dugu zuen mandatua eta prest gaude oposizioa suposatzen duen ardura handiari behar bezala erantzuteko. Zuek, herritarrek, aldaketaren giltza Bildu koalizioaren esku utzi duzue eta gaurtik aurrera zeregin honi helduko diogu, aldaketa politiko, soziala eta instituzionala hitzetatik ekintzetara eramateko Getxon.

Gaurkoan ezin ditugu ahaztu oraindik ere politika egiteko eskubidea urratua dutenek ezta ere gaurko eguna urrutian ospatzen egongo direnak ere, aupa zuek!!

Herrian txertatutako udala nahi dugu eta herritar aktiboak nahi ditugu, erabakitzaileak, eta horren aldeko apustu irmoa egingo dugu.

Aldaketa politiko eta sozialaren aldeko bidea elkarrekin burutzea dagokigu, gazteekin, hirugarren adinekoekin, kultur eta kirol elkarteekin, herrigintzan eta auzolanean aritzeko prest zaudeten guztiekin. Guztiontzat zabalik izango ditugu gure ate guztiak eta horrela lan egiteko konpromezua hartzen dugu, zuekin, herritarrekin elkarlanean.

Amaitzeko adierazi nahi dugu Bilduk zerrendaburua alkatetzarako aurkeztea beharrezkoa ikusi duela, Getxoko udalean alkategai ezkertiarra bozkatzeko aukera egon dadin eta getxoztarrek hautestontzietan eman diguten konfiantzak

solicita la palabra que le es concedida por la Presidenta. Da lectura a un texto en euskera del siguiente tenor literal:

“Enhorabuena a todos, ya que gracias a vuestro esfuerzo ha sido posible que la coalición Bildu aparezca hoy aquí con fuerza.

En el País Vasco estamos inmersos en una nueva época, en tiempo de cambio. El ambiente está cargado de ilusión y esperanza y en vosotros, en los ciudadanos, se puede sentir una fuerza especial, una fuerza que hemos sentido en las calles pero también desde lejos, desde las ciegas, que nos ha empujado a poner en marcha otro modelo de hacer política.

Tomamos vuestro mandato felices y con responsabilidad y estamos dispuestos a responder como es debido a la gran responsabilidad que supone la oposición. Vosotros, los ciudadanos, habéis dejado la llave del cambio en manos de la coalición Bildu y a partir de ahora llevaremos a cabo esta tarea, para llevar el cambio político, social e institucional de las palabras a los hechos en Getxo.

Hoy todavía no podemos olvidar a los que tienen vulnerado el derecho a hacer política y a los que celebran el día de hoy lejos de aquí. ¡Ánimo!

Queremos un ayuntamiento insertado en el pueblo y queremos ciudadanos activos, decisorios, y haremos una apuesta clara por lograrlo.

Nos concierne recorrer todos juntos el camino del cambio político y social, con los jóvenes, los de la tercera edad, las asociaciones culturales y deportivas, con todos los que estáis dispuestos a trabajar en la construcción del pueblo y el trabajo vecinal. Para todos ellos tendremos abiertas todas las puertas y nos comprometemos a trabajar de ese modo, en colaboración con vosotros, los ciudadanos.

Para terminar, queremos expresar que Bildu ha considerado necesario presentar su cabeza de lista a la alcaldía para que en el

merezi duelako.

Besterik gabe, mila esker eta zorionak guztioi."

Ayuntamiento de Getxo haya oportunidad de votar a un alcalde de izquierdas y porque así lo merece la confianza que nos han dado los vecinos de Getxo en las urnas.

Sin otro particular, muchas gracias y enhorabuena a todos."

Beste inork hitzik eskatu ez duenez, zinegotziek isileko bozketa egin dute, horretarako emandako paperetan, mahaiak dei egin eta gero.

No solicitándose más intervenciones, los Concejales procedieron a la votación secreta mediante papeletas proporcionadas a tal efecto y previo llamamiento por parte de la Mesa.

Emandako botoen zenbaketa egin ondoren, emaitza hau atera da:

Efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtuvo el siguiente resultado:

Emandako botoak, denak baliozkoak, 25.

Votos emitidos todos ellos válidamente: 25.

Horietatik:

Obteniendo de ellos:

Imanol Landa Jauregi jaunarentzat 10 boto

D. Imanol Landa Jauregi: 10 votos.

Marisa Arrue Bergareche andrearentzat 9 boto

D^a Marisa Arrue Bergareche: 9 votos.

Maitane Nerekan Umaran andrearentzat 4 boto

D^a Maitane Nerekan Umaran. : 4 voto

Luis Almansa Rubio jaunarentzat: 2 boto.

D. Luis Almansa Rubio: 2 votos

Boto zuriak

Votos en blanco: .

Ondorioz, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 196 c) artikulua arabera, IMANOL LANDA JAUREGI jaunak izendatu dute Getxoko alkate, Udalbatza honen gobernu eta administrazioa gida ditzan, joan den maiatzaren 22ko hauteskundeetan herritarren botorik gehien jaso duen zerrendako burua bera izan baita.

En consecuencia, y de conformidad con el artículo 196 c) de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, se proclamó Alcalde de Getxo a don IMANOL LANDA JAUREGI, cabeza de la lista que mayor número de votos populares obtuvo en las pasadas elecciones del 22 de mayo, para regir el Gobierno y la Administración de esta Corporación.

Jarraian zin edo promes eginarazi zaio, Tokiko Erregimenaren alorrean indarrean dauden lege xedapenen

Seguidamente se procedió a tomarle juramento o promesa, de conformidad con el artículo 18 del Texto Refundido

Testu Berreginaren 18. artikulua betetzeko; artikulua horrek xedatzen du alkateak bere zereginei heldu baino lehen karguaren zina egin beharko duela udalbatzaren aurrean.

Horretarako, idazkariak zin edo promesa hartu dio, ondoko formulari segituz:

Zin dagizu, edo agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohorearen izenean, Getxoko udaleko alkate arduraren eginbeharrak zintzoki beteko dituzuela, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuko funtsezko araua delako?

IMANOL LANDA jaunak honelaxe erantzun dio: *“Legeak horrela aginduta hitza ematen dut”*.

Idazkariak alkate izendatu du IMANOL LANDA JAUREGI jauna, eta bera jarri da mahaiburua; Adin mahaiaren lehendakariak aginte makila eta domina eman dizkio, karguaren bereizgarri, eta txistulari banda batek *“Alkate soinua”* jo du.

Jarraian, Landa jaunak hitz batzuk esan dizkie bertaratutakoei. Hona hemen:

“Egun on denoi:

zuen baimenarekin, lehenengo hitz hauen bidez oso hunkituta nagoela esan nahi dizuet, Getxoko herritar xume honentzat ohore handia delako berriro ere makila eskuetan hartzea.

Aldi demokratikoan nire aurretik egon diren guztiek bezala, makila erantzukizun handii hartzen dut, guretzat erreferente politiko eta sentimental handia den Joseba Andoni Agirre ta Lekube, Getxoko

de las Disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, que dispone que antes de comenzar sus funciones el Alcalde deberá jurar o prometer el cargo ante el Ayuntamiento Pleno.

A tal efecto, el suscrito Secretario le tomó juramento o promesa, con arreglo a la siguiente fórmula:

“¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?.”

A dicha pregunta don IMANOL LANDA respondió: *“Por imperativo legal prometo”*.

El suscrito Secretario declaró posesionado del cargo de Alcalde a don IMANOL LANDA JAUREGI, que pasó a ocupar la Presidencia, procediendo la presidente de la Mesa de Edad a hacerle entrega de la medalla y el bastón de mando, como signos distintivos del cargo, interpretando una banda de txistularis el *“Alkate soinua”*

A continuación el Sr. Landa dirigió unas palabras a los asistentes al acto, que se recogen a continuación:

“Buenos días a todos:

Me van a permitir que en estas mis primeras palabras les traslade mi profunda emoción por el honor que para este humilde vecino de Getxo supone asumir de nuevo la makila que como el resto de mis predecesores en el periodo democrático recojo con la responsabilidad de quien se erige en sucesor de nuestro gran referente político y sentimental, Jose Antonio de Agirre y Lekube, Alcalde de Getxo y primer lehendakari de Euskadi.

alkatearen eta Euskadiko lehenengo lehendakariaren ondorengoa naizen aldetik. Erantzukizun eta ohore hori oinarri hartuta, eta EAJ-k Getxorako proposatutako proiektura bildutako borondate, konpromiso eta ahalegin guztien irudia edo aurpegia naizela jakinda, eskerrak eman nahi ditut, bihotz-bihotzez:

-Gugan konfiantza jarri duten 14.182 getxotarrei, 2007an baino indar handiagoz, joan den legegintzaldian gauzatu eta garatu dugun proiektuaren zilegitasuna eta babesa indartuz.

-Nire gobemu-taldeari zentzu zabalean, gure herriarekiko konpromisoa, kualifikazioa eta zailtasunak gainditzeko lan-gaitasuna soberan erakutsi duelako.

-Nire alderdiari, buruzagiei eta jarraitzaileei, gure herria hobetzeko lanean uneoro laguntza eskaini baitigute.

-Eta azkenik etxe honetako langile guztiei, profesional bikainak baitira eta horiei esker udalerrria hobetzeko proiektuak eta ideiak egia bihurtzen baitira.

Aipatutako guztiak erabakigarriak izan dira Getxo udalerrriaren modernizaziorako proiektu nahitaezko eta ilusio-emailea garatzeko 2007an jaso genuen babesa oraingoan indar handiagoarekin berresteko.

Agindu berritu bat, gure ahalegin guztia horretara bideratzeaz gain, gure kudeaketa hobetzen saiatuko baikara, aurreko urte hauetan metatutako esperientziaren eta ezagutzaren errealitateetik eta, beraz, guztia ez dugula ondo egiten eta deskuidatzen garela dakienaren apaltasunetik. Eta hori guztia elkarrizketa eta akordioen bilaketa oinarritzko tresnatzat harturik.

Aurre egin behar diegun erronkak garrantzitsuak dira:

-Krisi ekonomikoa.

-Gizarte-politikak eta gehien gutxiesten diren eta ahulenak diren taldeez arduratzea.

-Etxebizitzara sarrera.

Desde esta responsabilidad y desde este honor, pero también desde quien es consciente de que constituye la imagen o el rostro de todo un conjunto de voluntades, compromisos y esfuerzos aunados en torno al proyecto liderado por el EAJ-PNV para Getxo, quiero trasladar desde aquí mi agradecimiento de corazón:

-A los 14.182 getxoztarras que, de nuevo y con mayor fuerza que en el 2007, han depositado su confianza en nosotros/as, reforzando la legitimidad del proyecto que hemos venido liderando y desarrollando en la legislatura pasada.

-A mi equipo de gobierno, que ha demostrado con creces su compromiso para con nuestro pueblo, su cualificación y su capacidad de trabajo para superar las dificultades.

-A mi partido, a sus dirigentes y a sus simpatizantes que en todo momento nos han apoyado en el trabajo conjunto y común por la mejora de nuestro pueblo.

-A todos y cada uno de los trabajadores y trabajadoras de esta casa, magníficos profesionales que consiguen que los proyectos e ideas para la mejora de municipio se hagan realidad.

Todos ellos han resultado decisivos para revalidar, con más fuerza aún, la encomienda que, a favor del desarrollo del necesario e ilusionante proyecto de modernización de nuestro municipio de Getxo recibimos en el 2007.

Una renovada encomienda con la que, además de poner todo nuestro esfuerzo, intentaremos mejorar en nuestra gestión desde la realidad de la experiencia y el conocimiento acumulado en estos años previos y por tanto desde la humildad de quien sabe que no todo lo hace bien y que también nos equivocamos. Y todo ello con el diálogo y la búsqueda de acuerdos como herramientas fundamentales.

Los retos a los que nos enfrentemos son importantes:

-La crisis económica.

-Las políticas sociales y la atención a los colectivos más desfavorecidos y vulnerables.

-El acceso a la vivienda.

-Gure herriak beharrezko duen sustapen ekonomikoa
- Gobelako problematika
-edo etorkizuneko Getxo definitzea,
Horiek dira jorrazten jarraitu behar dugun oinarritzko gaien adibide batzuk, beti ere, udalerraren modernizazio-prozesuaren testuinguruaren baitan eta, beraz, pasa den legegintzaldian abian jarritako ekipamenduen berrikuntzatik eta gizarte-, kultura- eta kirol-ekimenei eta ekimen ekonomikoaren ikuspuntutik.

Ez dut nire hitzetan gure euskara maitea ahaztuko. Euskara bait da azken batean gure herriaren ondare kultural preziatuena eta gure nortasunaren ezaugarririk garrantzitsuena. Euskararen normalizazioaren aldeko gure apustu sendoa aurrera jarraituko du beraz legealdi honetan, gure herritarrek ala eskatzen digutelako.

Eta hori guztia, gainera, baliabide publikoak Getxoko Udala betidanik ezaugarritu izan duen zorroztasunez, gardentasunez eta arduraz kudeatuz eta hiritarrak erabakieremuetara hurbiltzen jarraitzea ahalbidetuko digun hiritarren parte-hartze kulturaren garapenean sakonduz, jorraztuko dugu politika hurbilago eta irisgarriago batekin.

Edonola ere, eta hori guztia erdiesteko, Alkate honen eta bere gobernuaren lidergo sendoaz eta konprometituz gain, hemen ordezkaturako indar politiko guztien ekarpena eta konpromiso aktiboa beharko ditugu.

Ziur nago Euskadi murgildurik dagoen indarkeriarik gabeko aro berri honen testuinguruan -guztiok behin betiko finkatu dadila itxaro duguna- kokatzen den legegintzaldiaren hasiera honek eta areto honetan bere osotasunean islaturiko ordezkari politikoaren errealitateak talde politiko guztioi zeruertz berriak arakatzeko benetako aukera eskaintzen digula bakoitzak Getxoko herriaz dugun geure ikuspegi propioetik eta legitimoetik eta, gainera,

-La necesaria dinamización económica de nuestro pueblo,

-La problemática de Gobel

-o la definición del Getxo del futuro, constituyen solo algunos ejemplos de las temáticas básicas que debemos continuar abordando, en el contexto del proceso de modernización del municipio y por tanto de la renovación de los equipamientos e iniciativas sociales, culturales, deportivas y económicas puesto en marcha en esta legislatura pasada.

No olvidaré en mis palabras a nuestro querido euskera. Ya que es el euskera nuestro patrimonio cultural más preciado y la característica más importante de nuestro carácter. Por lo tanto, en esta legislatura seguiremos haciendo una apuesta clara a favor de la normalización del euskera, porque así nos lo piden nuestros ciudadanos.

Y todo ello lo abordaremos además, desde el rigor, la transparencia y la responsabilidad en la gestión de los recursos públicos que ha caracterizado al Ayuntamiento de Getxo, y también desde la necesaria profundización en el desarrollo de una cultura de la participación ciudadana que nos permita continuar aproximando la ciudadanía a los ámbitos de decisión, con una política más cercana y accesible.

En todo caso, y para todo ello, además del liderazgo fuerte y comprometido de este Alcalde y su gobierno, vamos a necesitar de la aportación y del compromiso activo de todas las fuerzas políticas aquí representadas.

Creo sinceramente que este comienzo de legislatura situado en el contexto de una Euskadi inmersa en un nuevo tiempo sin violencia que todos deseamos se consolide definitivamente, y la realidad de la representación política plena reflejada también en esta sala, ofrece a todas las formaciones políticas la posibilidad cierta de explorar nuevos horizontes en los que, desde la visión propia y legítima que cada una tenemos de nuestro pueblo de Getxo y que

bertako errealitate anitza ordezkatzeko duenetik, gure herritarren arazoak eta beharren irtenbide bateratua aurrera egitea ahalbidetuko diguten topaguneen bilaketan lan egin dezagun.

Ziurtasun osoa dut getxotarrek, orain inoiz baino gehiago, bizi ditugun garai zail hauetan, beren arazoak konponketan gure ahalegin guztiak bateratzea eskatzen digutela eta ez boterea lortzeko partiduen arteko borroka antzuan.

2007an egin nuen gisan, une honetatik bertatik helburu horrekin, nire eskua luzatzen dut eta ziur nago gainerako talde politikoek ere beharrezkoak diren ahaleginak egingo dituztela guztiok sustatu behar gaituen azken xede horren lorpenean lagunkide izan gaitzen, hala nola: Getxoko udalerriaren hobekuntza eta, horrekin, gure herritarren bizi-kalitatearenean. Eskerrik asko."

Alkate jaunaren hitzaldia amaitu ondoren, udalbatza eratzeko bildutako jendea txaloka hasi da; txistulariek "Agur jaunak" jo dute, eta dantzari batek ohorezko aureskua dantzatu dio udalbatzari. Bukatu da, horrela, bilera, hamarrak eta hogeita hamabost minutuan. Bileraren emaitza hemen jaso da, akta honetan, eta alkateak eta biok sinatu dugu. Nik, idazkaria naizenez, hemen jasotako guztia egiztatzen dut.

representa además la realidad diversa del mismo, podemos trabajar en la búsqueda de puntos de encuentro que nos permitan avanzar en la resolución conjunta de los problemas y necesidades de nuestros vecinos/as.

Estoy convencido que es la propia ciudadanía getxotarra la que, ahora más que nunca, en estos tiempos difíciles, nos exige centrar todos nuestros esfuerzos en la resolución de sus problemas y no en la estéril lucha partidista por el poder.

Al igual que en el 2007, mi mano queda por tanto tendida desde este preciso momento con tal fin, en la seguridad de que el resto de formaciones harán también los esfuerzos necesarios para coadyuvar en la consecución del objetivo último que a todos nos debe impulsar: la mejora de nuestro municipio de Getxo y con ella la de la calidad de vida de nuestros vecinos/as. Eskerrik asko."

Terminado el discurso del Sr. Alcalde, el público asistente a la sesión constitutiva prorrumpió en aplausos; los txistularis interpretaron el "Agur Jaunak" y un dantzari bailó un "aurrezku" de honor a la Corporación, dándose por concluida la sesión siendo las diez horas y treinta y cinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente Acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual, yo el Secretario doy fe.